

Euskararen normalizazioa eta erabilera epaitegietan; Ekimenak eta Emaizak

Lan honetan, Euskal Herriko epaitegietan euskararen normalizazioa bultzatzeko ekimenak, horiek bultzatzen laguntzen duten organoak eta euskara sustatzeko beste jarduera batzuk aztertuko ditut.

1 EUSKARA EPAITEGIETAN NORMALITZATEKO EKIMENAK

2001.ean euskararen erabilera proiektua ezarri zenetik bi izan dira bete izan nahi diren helburuak; lehenik, epaitegietan herritarren euskara erabiltzeko eskubidea bermatzea eta, bestetik, funtzionarioekin landuriko euskarak bere fruituak ematea. Lehen esperientzetarako organo judizial jakin batzuk hautatu ziren: Zigor Arloko epaitegi bat, Lehen Auzialdiko Epaitegi bat... Esperientzia abiatzeko, organo horietan idatzizko eta ahozko komunikaziorako prestatzeko moduluak eskaini zitzaizkien funtzionarioei hauek zerbitzua bi hizkuntzetan eman ahal izateko trebakuntza jaso zezaten. Horrez gain, "lehen hitza euskaraz" bezalako konpromisoak jarri ziren martxan.

Epaitegietan erabiltzen diren dokumentu ereduak dagokionez, ez dituzte berdinak erabiltzen epaitegi eta bake-epaitegietan.

Epaitegi arruntetan, eredu zehatz batzuk erabiltzen dituzte eta orokorrean, funtzionarioek, dokumentu elebidunak eskaini ahal izateko Intranet baliabidea dute. Bake-epaitegietan aldiz, hauek espresuki sortu zaie aplikazio informatiko bat zerbitzuak euskaraz eman ahal izateko, EpaiNET.

EpaiNET 2002an sartu zen bake epaitegietan lanean. Hasiera batean, zortzi izan ziren laguntza informatiko hau barne hartu zuten bake-epaitegiak; Azkoiti, Ibarrako elkarte, Lazkaoko elkarte, Legazpi, Lekeitio, Ondarroa, Igorreko elkarte eta Zamudioko elkarte. Laguntza informatiko honen sarrerak, epaitegiek bake-epaitegiek zehazki zituzten arazo batzuetan zuten jatorria, hala nola, haien arteko harreman urrian, langileen debora galerak dokumentuak bi aldiz errepikatuz, dokumentuen ezberdintasuna nahiz eta funtzio bera izan...

Beraz, arazoei aurre egin nahian eta euskara bultzatzeko helburuekin bai Intranet-ek eta bai EpaiNET-ek arazoak konpontzera sartu ziren epaitegietan.

2 EUSKARA BATZORDEA

Justizia Administrazioaren ekimenei buruz ari garela ezin bestekoa zaigu Euskara Batzordea aipatzea.

Comentario [A1]: Atal honetan informazioa ez dago argi antolatuta: zenbat ekimen dira? Bi? Hala bada, lehen paragrafoan argi aipatu hori, esan zein diren bi ekimenak eta gero, bakoitzari paragrafo bana eskaini, antzeko luzera izango dutenak. Atalaren amaieran azalpena ondo itxii behar da.

Comentario [A2]: Nik esaldi honen hasieran erreferentzia jarrito nuke: XXXX txostenaren arabera... Edo, bestela, oin-ohar batean aipatuko nuke zein dokumentutatik atera duzun datua

Comentario [A3]: Gogoratu testu-antolatzaileek koma izaten dutela ondoren.

Comentario [A4]: Ez da argi ikusten zer lotura duen honek aurrekoarekin

Comentario [A5]: Esaldi hau berrikusi

Comentario [A6]: Ez da ulertzen zer esan nahi duzun zehazki testu-atla onetan

Comentario [A7]: Ez da ikusten zer lotura duen atal honetan azaltzen ari zarena, lehen paragrafoan azaldutakoarekin (ikastaroak..)

Comentario [A8]: Zer lotura du honek aurrekoarekin? Zergatik hitz egiten duzu Batzordeaz bigarren puntuan? Ez dirudi koherenteago lehen puntuan aipatzea?

1996ean Eusko Jaurlaritza Justizia Sailaren eskutik, epaitegietako dokumentuak euskaraz normalizatzeko Euskara Batzordea sortu zen. Honela, gaztelaniaz zeuden dokumentuen itzulketaren inguruko adostasunak hartuko zituzten eta baita euskararen normalizazioan **jardun**.

Comentario [A9]: Baina, honi buruz esan duzu zerbait aurreko atalean. Zer lotura dago aurreko atalean esan duzunaren eta honen artean?

Batzorde honetan, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakasleak, Euskal Herriko Zuzenbide Fakultateko irakasleak, Herri ardularitzaren Euskal Erakundeko ordezkariak, epaile euskaldunak, abokatu euskaldunak, Justizia Saileko euskara teknikariak eta itzultzaileak eta UZEI zeuden. Batzordea eratu zenean, lehenik, UZEI-ri dokumentu judizialak itzultzeko ardura eman zitzaion. Gero, erakundeetako ordezkariak bidaltzen zizkien

UZEI-k, erakundeek hauek berrikusi eta ondore, batzarra osatzen zuten kide guztiak bildu eta idazkera eta terminologia **adosteko**.

Comentario [A10]: Eta? Esan duzu batzorde bat sortu zela, batzorde hori nork osatu zuten eta, halako batean UZEIk egindakoa aipatzen duzu, baina argitu gabe zer lotura duen horrek Euskara Batzordearekin. Edonola ere, aurreko oharrean jarri dizudan moduan, ez dakit e zote litzatekeen hobe puntu hau aurreratzea.

2.1 Euskara batzordearen hastapenak

Hasiera batean batzordearen lana mantsoa izan zen. Mantsotasun honen arrazoi nagusia terminologia desadostasunak izan ziren, zeinak Euskalterm baliabidearen laguntzaz eta hainbat etzabaiden bidez konpontzea lortzen zituzten. Hasierako erritmoa azkartzea lortu zuen, hasiera batean 5-10 dokumentu berrikusten zituzten bilera bakoitzean. Egun, aldiz, 40 eredu berrikusten dituzte bilerako. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko organigrama judiziala eratzen duten epaitegi eta auzitegi gehienetako ereduak euskaratu dituzte; Instrukzioko epaitegietakoak, Erregistro Zibilekoak, Zigor-arlokoak, Lan-arlokoak, Administrazioarekiko Auzietakoak, Adingabeen Epaitegietakoak, Probintzia Entzutegietakoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusietakoak etab.

Eredu guzti hauek interneten aurki daitezke, zehazki, Justizia Sailaren web **gunean**.

Comentario [A11]: Helbidea eman

2.2 Egitekoa eta osaketa

Euskara Batzordearen eratzearen zergatiak epaitegietan du jatorri, alegia, hauetan euskararen erabilera normalizatzeko izan zen sortua. Bere zeregin honetan, agiri judizialak elebidun izan daitezzen saiatzen dira, gazteleraz egoteaz gain, Euskal Herrian euskaraz ere izan **ditzagun**.

Comentario [A12]: Hau lehenago ere esan duzu. Bestalde, kontuz, subjuntibozko aditzak ez dira zuzen esaldi honetan

Zehazki, kide hauek osatzen dute Batzordea; epaile euskaldun batek, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko ordezkari batek, Bizkaiko Abokatuen elkargoko kide batek, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko kide batek, euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko kide batek, Itzulpen-gintza-enpresa kontratatu bateko bi **ordezkarik**, Justizia Administrazioako itzultzaile-interpretari batek, Justizia Sailburuordetzako hizkuntza normalkuntza teknikariak eta azkenik batzordea beraren koordinatzaile **batek**.

Comentario [A13]: Errepikatu a!

Comentario [A14]: Komeniko litzateke honen inguruko ohar edota iruzkinen bat egitea: osaera hau egokia da? Zergatik? Zergatik honela osatu batzordea?

2.3 Batzordearen lana

Batzordeak lan sistema finko bat du ezarria, honako hau da;

1) Gehien erabiltzen diren agiriak aukeratzen dituzte eta itzulpen-enpresari bidaltzen zaio honek

Comentario [A15]: Lehenago ere esan duzu honen inguruko zerbait

itzulpena egin dezan.

2) Justizia Administrazioarekiko Harremanerako Zuzendaritzatik batzordekide bakoitzari bidaltzen zaizkio, oharrak jar ditzaten.

3) Ohar horiek itzulpen-enpresak berriro sartzen ditu eta ondoren batzarreko kideei bidaltzen zaizkie.

4) Bilera bat egiten da agiriak behin-betikotzat jotzeko eta epaitegiatiko sistema informatikoan ezartzen da (EpaiNET eta Intranet).

3.GAUR EGUN

Emaniko ekimen handiengatik eta oso zati handi batean Euskara Batzordeari esker euskararen normalizazioak oso pausu handiak eman ditu euskara juridikoaren arloan, horren adibide argia da bai Euskal Herriko Unibertsitateak bai Deustukoak ematen duen formakuntza euskaraz eta bai lengoia juridikoa zehazki lantzeko ematen diren klaseak. Bestalde, jada zaharkiturik badaude ere eredu argi dira euskaraz dauden eskuliburu juridikoak bai eta kodeak. Hala ere, eskuliburu hauetan ikusten da oraindik

asko dagoela egiteko, baliabide urriak direla eta baita laguntza ekonomiko eskasengatik ez baita posible euskarazko eskuliburu eta kodeak gaztelaniazkoak ateratzen diren garai berean eduki eta horrek azkenean, gaztelerazkoetara jotzera behartzen gaitu, beste irtenbiderik ez egotean.

Epaitegietan egun testu agiri elebidunak eskaintzearen aukerari dagokionez, batzordeak, langileen lana errazteko helburuaz itzulpen automatikoa ari da bultzatzen baina hala era hiru modu daude agiri elebidunak emateko:

1) Automatikoki.

Automatikoki elebidun aterako diren dokumentuak dauzkagu hemen, sartuko diren datuak hizkuntza guztietarako balio baitute.

2) Langileak bi aldiz datuak sartuaz.

Langileak berak aukeratzen du hizkuntza eta zenbaitetan elebidunak aukeratu ezker bi aldiz sartu behar izaten ditu datuak, lan astuna izanaz.

3) Itzulpen automatikoaren bitartez.

Itzulpen automatikorako programen bidez testuak langileari inongo lan astunik eman gabe zuzenean argitaratzen ditu agiri elebidunak. Gaur egun, Tolosako eta Gernikako epaitegietan daude baina helburua Euskal Herri osoko epaitegietara zabaltzea da.

Egun, eginiko bide gogorra eta gero, iraganean zeuden terminologia arazoak asko murriztu dira eta Batzordeak lanean dihardu batez ere testuen idazkeren gaineko arazoei aurre eginaz eta euskarazko agiri judizialen idazkera-estiloa finkatzen eta oraindik garrantzitsuagoa dena, gazteleraz adierazitakoa,

Comentario [A16]: Irati: gauza ezberdinak dira. Euskara Batzordeak ez du zerikusirik unibertsitatean egiten denarekin.

Comentario [A17]: Zaharkitua k? Zergatik esaten duzu hori? Gehienak 2000. urteaz geroztik argitaratu dira!

Comentario [A18]: Eskuliburuak eta lege-testuak gauza ezberdinak dira. Edonola ere, Euskara Batzordeak ez ditu egiten ez lege-testuak ez eskuliburuak.

Comentario [A19]: Ez da argi ikusten zer lotura duen honek esan duzunarekin. Bestalde, uste dut ez duzula ondo ulertzen zertarako den itzulpen automatikoa.

Comentario [A20]: Zergatik esaten duzu "hemen"? Bestalde, kontuz: kasu honetan ez dago itzulpen automatikorik. Hori beste gauza bat da.

Comentario [A21]: Hemen ere ez dago itzulpen automatikorik

Comentario [A22]: Itzulpen automatikoa euskaraz oso mugatua da. Langileari zirriborro bat ateratzzen zaio, eta gero berak dena zuzendu eta egokitu behar du

Comentario [A23]: Zergatik esaten duzu "gogorra" izan dela? Izan ere, nik ez nuke esango gogorra izan denik.

hitzez hitz eta esanahi zehatza

euskarara itzuliaz. Argi dago, itzulpengintza den lan gogor honetarako, eta honen helburua lortzeko, euskararen normalizazioa epaitegietan alegia, Batzordekideen laguntza ezinbestekoa dela, baita UZEIko lankideen laguntza baina batez ere eta nagusiki erabiltzaileen laguntza, dokumentu hauen existentzia eskatuaz eta nola ez erabiliaz.

Comentario [A24]: Pasarte hauek ez dira ondo ulertzen. Sakon erebisatu behar dira

BIBLIOGRAFIA

<http://moodle3.ehu.es/course/view.php?id=376>

Comentario [A25]: Zehaztu zein txosten erabili dituzun: egilea, urtea, izenburua...